

135/2022 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez onartzen den Barrualde-Galdakao ESiko Erradiodiagnostikoko Atal sanitarioko burua –burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikoak, Barrualde-Galdakaoko ESko arreta espezializatuarekin loturaduna– hautatzeko deialdian onartutakoen eta bazter utzitakoen behin behineko zerrenda.

AURREKARIAK

184/2021 Ebazpena, otsailaren 15ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Erradiodiagnostikoko Atal sanitarioko buru lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia egiten den Barrualde-Galdakaoko ESlan (EHAA, 238. zk., 2021eko azaroaren 30ekoa, eta BOE, 294. zk., 2021eko abenduaren 9koa).

Barrualde-Galdakao ESiko Gerentzia Zuzendaritzaren abenduaren 10eko 1719/2021 Ebazpenaren bidez (EHAA, 3. zk., 2022ko urtarrilaren 5ekoa, eta BOE, 13. zk., 2022ko urtarrilaren 15ekoa), zuzendu egin zen otsailaren 15eko 184/2021 Ebazpenean lehiaketarako deitutako lanpostuaren izendapena, arlo kliniko zehatzuz. Hala izendapen hau izatera igaro zen: Erradiodiagnostikoko Atal sanitarioko burua; burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikoak, arreta espezializatuarekin loturaduna.

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du, Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abenduaren 30ean amaitu zen.

Akatsaren izaerak hautagaien aurkezpenean eragina izan dezakeela ikusita, eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzen da, 15 egun baliodunekoa hain justu, abenduaren 10eko 1719/2021 Ebazpena dagokion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 4an amaitu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESIko Erradiodiagnostikoko Atal sanitarioko burua; burua eta lepoa, muskuloeskeletikoa eta kardiotorazikoa arlo klinikoak, arreta espezializatuarekin loturaduna izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakaoko ESIko Gerentzia Zuzendaritzari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko otsailaren 7an.



Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESiko ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATAL
SANITARIOKO BURUA; BURUA ETA LEPOA, MUSKULOESKELETIKOA ETA
KARDIOTORAZIKOA ARLO KLINIKOAK, ARRETA ESPEZIALIZATUAREKIN
LOTURADUNA IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- M^a Jose Ereño Ealo

Baztertuak:

- Inor